EUKARISTIA, ERREIÑUAREN SAKRAMENTUA

Azalpen onetarako, Alkartasun Barriko eukaristia textoak dagozan eran artzen ditut. Ez dot galdetuko orain zelako aldakuntza bidea izan daben, edo Jesusek berak zelako berbak esan izan eikezan eta zelan ulertu ete ebazan bere egiteak eta berari jazoriko gertaerak. Olako itaunak bidezkoak dira. Baiña, orain, Alkartasun Barriko textoak, bearbada fede eta liturgi prozeso baten buruan, euren zentzun eta esangurea dauke Alkartasun Barriko kontextoan. Jesusen inguruan eta Jesusegandik (Jesusen Espiritutik) sorturiko Eleizearen kontzientzia ispillatzen da texto orreetan. Zentzun eta esangura au batzea da nire asmua.

1. Jaungoikoaren erreiñua dago Jesusen bizitzaren muiñean. Au da bere gai osoa, onek betetzen dau, onegaitik bizi eta ilten da. "Joan atxillotu ebenean, Jesus Galileara joan zan Jaungoikoaren barri ona iragartera. Olan iñoan: Bete da epea eta ur dago Jaungoikoaoren erreiñua. Biotz-barritu zaiteze eta siñestu barri ona" (Mk 1,14-15;). Barri onak Jaungoikoak bere erregetza gauzatuko dauala esan nai dau, eta au da Jesusek iragarten dauana: "Jaungoikoaren erreiñuaren barri ona iragarten eban eta erriko gaitz eta gaisotasun guztiak osatuten" (Mt 4,23; ikusi 9,35; 10,7-8; 24,14). Jaungoikoaren erreiñua ez da teokrazia, gizaki erlijiosoen aginpidea, istorian, eta biblia istorian bertan ezaguna. Jaungoikoaren erreiñua au dogu: Alkartasun Zaarrean zear antsiz eskaturiko aginpide zuzena eta

zoriontsua errealidade biurtuko dauala Jaungoikoak, makalak, zapalduak eta txiroak aldeztuz eta askatuz (Sal 72, 4). "Zoriontasunak", adibidez, dira Jaungoikoarem erreiñu onen giro, norantzakoa eta erizpidea (Mt 5, 3-10; Lk 6,20-26). Orregaitik, Jesusen egiteak oindiño berbak baiño garrantzitsuagoak dira, euretan errealidade biurtuta agiri dalako zelanbait erreiñua (Mt 11, 5-6; Lk 4,16-21) eta onen zentzuna erakutsita.

Aldi bi bereizten dira erreiñuaren bidean: istoria barrukoa eta azkena (eskatologikoa). a) Istoria barruko erreiñua orain gertatzen dana da eta egin bearrekoa (Mt 23,13). Eltzen doan uzta langoa da (Mt 13, 24-29.36-38), aziz doan zugatza langoa (Mt 13,31-32), jagi egiten dan orearen antzekoa (Mt 13, 33). b) Azken etapak egoera barri eta betikoa asten dau. Gerokoa danez, eta Jaungoikoaren eskuetakoa, irudien bidez emoten da ulertzen: irudi orreek ez dabe geroko errealidadea deskribatzen; azken-etorkizunera giza-gogoa zabaldu eta oraingo eginbearrera eragin baiño. "Atea istea" lez da (Mt 25,10-11, "uzta ebatea" (Mt 13,30), arrain onen eta txarren banakuntza (Mt 13, 48-50), erregea bazkal aretora sartzea (Mt 22,11-13). Orain jokatu bear dauan erantzukizuna suspertzeko irudiak.

Parabola askok alderdi biak alkartzen dabez, istoria barrukoa eta azkena: garia eta gal-bedarra (Mt 13,24-30.36-43), sarea (Mt 13, 47-50), amar neskatillak (Mt 25, 1-13), talentuak (Mt 25,14-30), jai jantzia (Mt 22,10-13). Izan be azken etapa ez dago inoz be istoria barrukotik bananduta: Aita berbera da, Jesus berbera, Espiritu bera, anaitasun bera. Geroko erreiñuari buruzko berbea benetakoa da: gero ori barik gizakia ez litzake gizaki izango, baiña geroari buruzko berba orrek orain bizi eta gauzatzera bultzatzen dau. Geroa oraiñean sustraitzen da. Oraiña da gizakiaren erantzukizun lekua, azken-etorkizun orizontearen aurrean.

Jesusek bizikizun bikoitza izan dau, eta bizikizun bikoitz ori da bere existentzia: Aitaren bizikizuna eta Jainko erreiñuaren bizikizuna. Leenengoa Aitagaz dauan alkartasuna da. Zer daite-

ken alkartasun ori, besteak beste, bere otoitzean susma azoten da, sarritan bakartadean egiten dauan otoitzean (Mt 14,23; Mk 1,35; Lk 5,16), eta "gau osoan" be bai (Lk 6,12). Erreiñua zer dan zeatz esaterik ez dago, baiña, dana dala, onako onen barruan dago: Aitaren "zuzentasuna" bete daitela munduan: "zuzentasuna" Aitaren "naia" berbera dala ("etor bedi zure erreiñua", "egin bedi zure naia"). Aitaz dauan bizikizuna emon nai deutse guztiei; guztiak sartu daitezela konfiantzazko eta maitasunezko artuemon orren barruan, eta, batera, "zuzentasun" orrek ("zoriontasunak") eraldatu eta birsortu dagizala gizakien alkarren arteko artuemonak.

2. Jaungoikoaren erreiñuko bizitza barri au bazkari irudipean emoten da (Mt 8,11), edo jaialdi irudipean (Mt 25,21.23). Oturuntza irudiak ugaritasuna eta anaitasuna gogorarazten ditu. "Zoriontsua Jaungoikoaren erreiñuan jango dauana", esan eban batek (Lk 14,15). Bazkari onetarako deia egiten jake jente guztiei, eta bultzatu be egiten dira sartu daitezan, etxea betetzeraiño (Lk 14,16-23; ikus Mt 22,1-10). Jesusek zergalari eta pekatariekin jateak Jaungoikoaren erreiñua etorri dala adierazten dau (Mt 9,11). Egite ori urbiltasunaren, onartzearen eta alkartasunaren ezaugarria da eta. Or Jesusek paraboletan iragarten dauana (Lk 15) errealidade lez bizi dau.

3. Azken afarian, Jesusek, eukaristía sortzean, bere eriotza (eta bere bizitza osoa) itun barri lez ulertzen dau (Lk 22,20; 1Ko 11,25). Alkartasun barriak onako alderdiak ditu: gizaki guztiei Espiritua emotea (Ap Eg 2,16-18), barruko legea, ez kanpokoa (Eb 8,10), Jaungoikoaren bizikizuna (Eb 8,11; Jn 6,45; 14,23; 1Jn 2,20-21), pekatuen parkamena (Eb 8,12), guztien anaitasuna (Apk 4,9-10; Ef 2,13-16). Au da, alkartasun barria Jaungoikoaren erreiñua berbera da, Jesusek asikeratik iragarri eta bere egintzeez erakutsi ebana.

Pazko barriko afaria dogu, beraz, Jesusen azken afaria, alkartasun barrikoa eta erreiñuko afaria. Jesusek olan diño: Artu eta jan; au nire gorputza da, zuekaitik emoten dana. Artu eta

edan guztiok; au nire odolaren kaliza da, alkartasun barri eta betikoarena, zuekaitik eta askogaitik isuriko dana. Aurreratxuago, pazko afariari buruz olan diño: "Ez dodala geiago jango diñotsuet bere betea Jaungoikoaren erreiñuan izango dauan arte" (Lk 22,16;). Bardin, lekune berean, ardaoari buruz (22,18). Mateoren eta Markosen textoetan, ostera, au Itun Barriko ardaoaren (konsagratuaren) gaiñean diño: "Ez dodala geiago maatsaren frutu onetatik edango diñotsuet neure Aitaren erreiñuan zuekaz edango dodan egunerarte" (Mt 26,29; Mk 14,25). "Erreiñua emoten deutsuet nire Aitak niri emon eustan lez: jan eta edan dagizuen, eta amabi tronutan jesarri eta Israelgo amabi leiñuak jaurri dagizuezan" (Lk 22,30). Emen daukaguz eukaristiako jan eta edatea erreiñuagaz lotuta. Erreiñu istoria barrukoa eta azkenekoa. Guzti onetan erdigunea au dogu: Jesusek erreiñuaren alde dana jarten dauala, Jaungoikoaren "zuzentasuna" munduan ezarri daiten.

4. Eukaristia ulertzearen istorian, gizaldietan, ardurea "presentzia errealean" eta "sakrifizio" izakeran bildu zan. Ogi eta ardao konsagratuetan dan Kristoren presentzia "erreala", eta eukaristiak kurutzeko sakrifizioagaz dauan erlazioa. Guzti onek istoria luzea dau, eta, jakiña, beti ez dira era berean azpimarratu izan aipaturiko alderdiak. Baiña egia da azken gizaldietan orra bildu izan dala fedearen ulermena, eta onetaz emondako azalpenak alderdi bioi buruzko ardura zorrotz eta konpara-eziñekoa erakusten dabe. Alderdi bi orreek, jakiña, oiñarrizkoak dira, ezinbestekoak beti, eta gaur be ez da ezer irabazten eurak makalduaz. Baiña eukaristía batez be erreiñuaren sakramentu dala lausotu eta ia ezabatu egin zan. Jaunaren afaria dala, erreiñuko bazkaria eta jaia, konbidadu guztien maia. Orregaitik, ulermen aretan presentzia erreala abstrakto izateko arriskuan dago, esan gura dauan errealidadetik bananduta. Ostera, errealidade orretan eta orretarako da presentzía. Erreiñuaren sakramentu dala esaten dogunean erreiñuaren erlaziñoan ulertzen dala bakarrik esan nai dogu: Erreiñu onetara-

ko bizi izan zan Jesús, ori izan zan bere irakatsi eta aalegiña, orretarako da Eliza.

Beste aldetik, eukaristiak erreiñua zer dan azaltzen dau sinbolikoki eta benetan: neba-arrebak alkartzea Kristoren inguruan, guztiz emon dan (emoten dan) Kristoren inguruan. Orrela, eukaristiak erreiñua eragiten dau. Orregaitik da sakramentu: esan nai dauana egin egiten daualako.

5. Azken afarian, Alkartasun Barriko textoen arabera, berba bi dagoz erreiñua zer dan adierazten dabenak, Jesusek afari orretan egin eta bildu nai dauana azaltzen dabenak, eta, beraz, eukaristía zer dan erakusten deuskuenak. 1. "Ni zerbitzari lez nago zuen erdian" (Lk 22,27; ikus 24-27). 2. Apostoluen oiñak garbitzea. Joanen ebanjelioak, sinoptikoen eukaristia narrazioaren ordez, oiñak garbitzea eta oni buruzko berbak sartzen ditu (Jn 13,1-17). Jarraian datorren itzaldian agiri da erreiñu orren barne-araua: "Au da nire agindua: alkar maite dagizuela nik maite izan zaituedan lez" (Jn 15,12; ikus 15,17). Jesús erdian dago. Erreiñuaren alde emoten dau bizia. Emon be zerbitzari lez eta oiñak garbitzen dituanaren eran, eta au diño: "Maite egizue alkar". Beraz, ikasleei, Eleizeari (gurí), "egizue au nire oroigarri" dinotsenean, "au" Jesusek egiten dauana bera da, edo Jesús dan guztia, azken maia orretan: Erreiñuko maian, erri guztiak bete bear daben zuzentasun eta anai-arrebatasun maian, zoriontasunen eta magnificat kantuaren maian. Egizue "au": anai-arreben bazkaria, "zuzentasun" eta santidadearen errealidadea, Jaungoikoa "dana guztietan" egia (1Kor 15,28). Egizue eukaristiaren egia dan erreiñua. Argi dago or Jesusek ez dauala gogoan leenengo ta bein rito barri bat eratzeko asmurik, erreiñua bultzatzea baiño. Jakiña, erreiñuak bear ditu ospakizunak eta mezua gorpuztu eta trasmititzeko erak. Baiña ospatzen dan errealidadeak erabagiten dau dana emen.

6. Gizarte mailla bananduak eta bereizkuntzarik ez izatea Jaungoikoaren erreiñuko maia onen ezaugarri bear-bearrezkoa

da. Maia onetan guztientzat dago naiko. Ikus Apostoluen Egiñak 2, 44-46; 4,32-37. Andiena guztien zerbitzari izatea dagokio maia orri, eta ezaugarri onek erakusten dau nor dan Elizan karguak izateko gai. Eukaristia erreiñuko sakramentu lez biziko balitz, "ez litzake ezagutuko gizartea. Barriro sortua izango litzake" (G Lohfink, *¿Necesita Dios la Iglesia?* Madrid 1999, 242). Eukaristia kristau fedeak berea dauan iraultza indarraren sintesia da.

7. "Liturgia Eleizearen ekintzaren gaillurra da eta, batera, aren indar osoa darion iturria". "Jaunak gizakiekin dauan ituna eukaristian barriztatzeak biztu eta erakarri egiten ditu siñestedunak Kristoren ezinbesteko karidadera. Liturgiatik, beraz, batez be eukaristiatik, disuri grazia bere iturritik lez gugana, eta orrela eraginkortasunik andienaz lortzen dira gizakiak Kristogan santutzea eta Jaungoikoaren aintza: Eleizearen beste lan guztiak euren elburua daben onetara zuzentzen dira" (Liturgiazko Konstituzioa 10).

Au olan da berez eta logikaz, eukaristia erreiñuko sakramentutzat ulertu danean. Ez dakit Kontzilioaren irakaspen onek emen argitu nai dan zentzun osoan ulertzen dauan eukaristia, ala oindiño aurreko adiera bertikal eta barrukoiari lotuta dagoan. Baliteke azkenengo au izatea. Ez dot esan nai adiera orretan alderdi komunitarioa eta erreiñuaren ideiarik ezelan be sartzen ez zanik. Baiña nik emen esan nai dodan zentzunetik oindiño urrin egoan azken gizaldietako adiera a.

Eukaristiari buruzko arazo istoriko guztiak erdigune eta muin onetatik ulertzen dira, eta or dauke, eta or bakarrik, argitzen dituan argia: erreiñuko maian. Jakiña, eukaristia fedearen oiñarria Kristo dogu. Kristo benetan Kristo izatea. Eukaristia ulertzean (eta beste sakramentuak) ez da azken baten kristologiatik urteten. Sakramentuen zentzua eta egia Kristo da. Jesus, kristau fedean, ez da erlijiño sortzaille bat, dotriña sakon, onuragarri batzuk agertu eta Jainkoagazko jardun jakintsu eta egokiak eratu dituana. Eta erlejiñorik sortu be ez dauala sortu

esan nai bada, azken baten kristau fedearentzat ez dauka orrek garrantzirik, fede onetatik eraz ulertu ezkero. Erlejiño sortzaille baiño geiago da. Ez da bera erlejiñoaren kanpoan geratzen, barruan baiño. Bere izatearen inguruan, beragandik sortzen da kristau fedea, mugimentua eta erlijiñoa.

Kristau fedearentzat Kristo dana dalako, ez da geratzen mugimentu aren asikeran, aintziñeko profeta sortzaile lez. Mugimentu orren barruan doa istorian zear. Presente dago. Ori adierazten dabe Alkartasun Barriko textoak era batera naiz bestera: "Zuokaz nago munduaren azkenerarte", edo izango dozue "egiaren Espiritua" (Jn 13,17), "ez zaituet umezurtz itziko, etorriko naz zuekana" (Jn 13, 18), "zuek nigan eta ni zuekan" (Jn 13,20). Esaldi oneek, edo esaldiak adierazi nai daben errealidadeak, Kristo nor dan emon nai dabe ulertzen. Sakramentuak (eta beste) kristologi fedearen zabalpena dira bizitzan zear. Arazo guztiak kristologi fedean datzaz azken baten. Ez Jesusek bere berbakaz sortu ditualako (esate baterako), Jesusen presentziak, eta aginpide salbarri presente orrek euren zentzuna sortzen daualako baiño.

Emen, asikeran erreiñuaz esandakoa gogoratu bear da: Kristo Jaungoikoaren erreiñua ezarteko dala guztiz. Ez edozein erreiñu: Jaungoikoarena baiño. Baiña, batera, ez dagi edozein Jaungoikoz: erreiñuaren Jaungoikoaz diardu (zoriontasunak, magnificat). Onek erakusten dau nor eta zer dan Kristo, eta, beraz, zelan eta zetako dagoan "zuekaz munduaren azkenerarte". Eta, ondorioz, onen barruan, zer eta zetako dan eukaristia sakramentua. Zalantza barik, eukaristia esan daiteke "sakramentuen sakramentua" izan dala Elzeizaren kontzientzian. Onetan, presentzia "erreala" azpimarratzeak izan dau eragiña. Baiña alderantzizkoa be jazo da: presentzia "erreal" orretan sakatu bada, "sakramentu guztiz santuaren" kontzientzia izan dalako be izan da. Dana dala, benetako arrazoi teologikoa au da: kristau fedearen zentzuna beste guztiak baiño osoago errepresenta eta ospatzen daualako dogu eukaristia sakramentuen

sakramentua ("Eliz ekintzaren gaillurra"). Erreiñuko maia izatea da arrazoi teologikoa. Eta aparteko eraz autortzen da eukaristian presentzia "erreala" daukagula, Kristoren mezua eta izatea erreiñua dalako, eta eukaristia aparteko eraz ain zuzen erreiñuaren sakramentu osoagoa dalako (neba-arreben maia). Alkarri lotuta dagoz berez alderdi oneek, eta azken baten ez dabe arazo apartekorik sortu bear. Benetako kristologiaren barruan naturaltasunez ulertu eta bizi bear dira.

8. Arazorik sakonena, beste guztia baldintzatzen dauana, kristau fedearen beraren ulermena da: erreiñu ikuspegitik ulertzen dan ala ez. Eukaristi eta beste kristau edukien esanaia eta euren barruko gaiak guztiz aldatzen dira ikuspegi orretatik ulertu ezkero. Kristau mezuaren aurkezpen eta ospakizunen artean, eukaristia ez da aurrerantzean garrantzi gitxiagokoa izango. Baiña geroago eta argiago ikusiko da bere benetako zentzuna neba-arreben bizitzako maia ospatzean dagoala, bein eta barriro. Adiera orrek kristau fedearen muiña jarriko dau argitan, eta Jesus maia orretan egiten dala presente. Ez dau onek, beraz, iñondik eukaristiako Kristogazko artuemona moteltzen, neba-arreben arteko ospakizunaren mesedetan: Kristo dago beti erdian ("presentzia erreala"), eta onen bizi-emote bizia ospatzen da. Bizia emote orretan dago bilduta "erreiñua". Baiña, orduan, erreiñuaren benetako ospakizun barik ez dago eukaristiarik.

Urrun gabiltz oindiño eukaristia orrela ulertzetik. Baiña kakoa ez dago ainbeste eukaristiaren ospakizunean bertan, kristau fedea ulertzean baiño. Emendik, berez lez ikusi eta sakonduko da eukaristiaren zentzuna eta ospakizuna. Alan be, barriro dakargu gogora leen esandakoa: eukaristiaren adiera eta ospakizunak, euren aldetik, kristau fede eta bizitzaren zentzuna eraldatzen dabe.

Luis Arostegi